

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gotzon Bikuña Agirre

*Bergara,
Gipuzkoa
(1948)*

Aurkibidea



Biografia



Bidegurutzetan jaioa, ama bertakoa zuen eta denda zeukaten: Graciano Agirre drogeria. Aita Zubizar baserrikoa zen, arotza. Gotzoni umetatik egokitu zitzaion dendan eta arotzerian laguntzea. Herri eskolan ikasi zuen eta gero maestria Elementalean. Ondoren General Mecánica enpresan hasi zen lanean. Urretxindorrek musika-taldeko kidea izan zen, 60ko hamarkadan ospea izan zuen Bergarako taldea. [Rosa Narbaiza](#) emaztea ere elkarrizketatu dugu.

Zintak

BER-348

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-02
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Bergarako Graciano Agirre drogeria I

- **Erref:** BER-348/002
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:00:36. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bidegurutzeta kalean jaio zen Gotzon eta etxe azpiko Graciano Agirre drogeria familiarena zen. Dendak ia 100 urte iraun zituen zabalik eta haren joan-etorriak eta anai-arrebek dendan zertan laguntzen zuten kontatzen du.</p>

2. Bergarako Graciano Agirre drogeria II

- **Erref:** BER-348/003

- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Graciano Agirre drogeria, garai batean mertzeria ere izan zen eta botoiak enkarguz forratzen zituzten. Prozesua azaltzen du Gotzonek. Aterkiak ere konpontzen ziren.</p>

3. Aita, zizelkatzaile eta arotz bikaina

- **Erref:** BER-348/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gotzonen aita arotza zen eta zizelkatzaile oso ona. Upelak, kojineteak, produktu azidoentzat egurrezko deposituak... egiten zituen. Sagardoentzako upelak nola egiten zituen kontatzen du

4. Sagardorako upelak egiten

- **Erref:** BER-348/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Gotzonek, aita laguntzen zuen sagardoetarako upelak egiten. Prozesua nolakoa zen kontatzen du. Garai batean, sagardoa baserri gehienetan egiten zen.

5. Familiako negoziatan laguntzen

- **Erref:** BER-348/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gotzonen aita altzariak egiten zituen, baina familiartean banatzeko, ez saltzeko. Gotzon aitari arotz lanetan eta amari drogerian laguntzen ibiltzen zen umetan eta gaztetan.

6. Bergarako eskola nazionaleko oroitzapenak

- **Erref:** BER-348/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:11:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bergarako eskola nazionalean ikasi zuen eta erregimenaren eskola izanda ere, oroitzapen onak ditu Gotzonek. Ondoren, institutuan ikasi zuen pare bat urtez eta azkenik "Maestría" egin zuen. Ikasketak bukatu eta berehala Bergarako General Mecánica lantegian hasi zen lanean.</p>

7. Umetan, igandero aitarekin mendira

- **Erref:** BER-348/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Gotzonen aita zen Luis Bikuñak, Bergarako Pol-Pol, Gorla Alpino eta Enara mendi-taldeak sortu zituen. Familia guztia oso mendizalea da. Umetan, igandero joaten zen aitarekin inguruko mendiren batera: Gorka, Irukurutzeta, Landarraitz...

8. Bergarako Pol-Pol mendi-taldea

- **Erref:** BER-348/012
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Bergarako Pol-Pol mendi-taldean irteerak antolatzen ibili da Gotzon azken 30 urteetan. Taldeko sortzaileetako batzuk aipatzen ditu. Orduan, txangoetara ez ziren haurrak joaten.

9. Bergarako Pol-Pol mendi-taldeko ereserkia

- **Erref:** BER-348/014
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Etxean musikarako zaletasun handia zegoen eta mendian beti kantatzen zuten: Pol-Pol mendi-taldeko ereserkia abesten du Gotzonek.

10. Bergarako Urretxindorrek taldearen sorrera

- **Erref:** BER-348/016
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bergarako Urretxindorrek taldeko kideetako bat izan zen Gotzon. Taldea nola sortu zen, zeintzuk ziren, non entseatzen zuten, izena nondik datorren... kontatzen du.

11. Bergarako Urretxindorrek taldearen lehenengo kontzertua

- **Erref:** BER-348/017
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Bergarako Urretxindorrek taldeak lehen aldiz publikoaren aurrean kantatu zueneko kontatzen du Gotzonek. 1966ko maiatzean izan zen, Bergarako "Salon Novedades"en. Orduko musikari ospetsuak bertan egon ziren: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lurdes Iriondo...</p>

12. Txomin Amasorrain, Elementalean irakasle

- **Erref:** BER-348/019
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:22:34. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Txomin Amasorraini buruz hitz egiten du Gotzonek. "Zeruko Argia"n idazten zuen eta bere matematikako irakaslea izan zen Elementalean. Gelan euskal giroa nagusi bazen ere, klaseak gaztelaniaz ziren. Urretxindorrek taldean abesten zituzten kantuak Txominek euskaratzen zituela kontatze du.</p>

13. Aurrekuaren kantaren hitzak

- **Erref:** BER-348/020
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:24:14. **Bukatu:** 00:26:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aurreskuari euskaraz hitzak jarri zizkion Txomin Amasorrainek. Kritika asko jaso zituzten. Euskal Herri mailan, aurreskuari hitzak ipini zizkieten lehenak izan ziren, 1969. urte inguruan. Kantua abesten du. Gotzonek uste du erregimenak inoiz ez zuela ondo ulertu kantuaren esanahia, ez zuelako zentsuratu.

14. Txomin Amasorrain

- **Erref:** BER-348/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Txomin Amasorrain nolakoa zen deskribatzen du Gotzonek. Pazientzia handikoa, euskaltzalea, mendizalea, umoretsua... Txominek eta Juste Amenabarrek Ernai antzerki-taldea sortu zuten.

15. Bergarako Ernai antzerki-taldea

- **Erref:** BER-348/022
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:29:09. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Ernai antzerki-taldean parte hartu zuenekoak kontatzen du. Taldeak Elementalean entseatzen zuen eta kideetako batzuk aipatzen ditu: Xabier Zezeaga, Iñaki Arriaran, Migel Laspiur, Marixabel Arregi, Itziar Amenabar...</p>

16. Bergarako Urrentxindorrak: kontzertuak

- **Erref:** BER-348/026
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:34:31. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Urrentxindorrak taldearen lehenengo kontzertua eta gero, inguruko herrietan emanaldiak ematen hasi ziren: Oñati, Azpeitia, Eibar... Bizkaian ikastolek

jaialdi asko antolatzen zituzten eta hara joaten ziren ia astebururo. Orduko musikariek harreman handia zuten.

17. Maite Idirin, Estitxu, Lurdes Iriondo, Ez Dok Amairu..

- **Erref:** BER-348/027
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:36:26. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Maite Idirin eta Estitxu abeslariak eta Ez Dok Amairu taldeari buruz hitz egiten du.

18. Oskarbi eta Ameslariak taldeak

- **Erref:** BER-348/029
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:41:14. **Bukatu:** 00:42:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Donostiako Oskarbi eta Bergarako Ameslariak taldeei buruz hitz egiten du.

19. Bergarako Urretxindorrek taldearen lehenengo diskoa

- **Erref:** BER-348/031
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:46:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>1968an Santurtziko ABRA jaialdian parte hartu zuen Urretxindorrek taldeak gonbidatu bezala. Besteak beste, Zorion Egileorrek eta Natxo de Felipek abestu zuten urte hartako finalean. Urretxindorrek taldeari zilarrezko domina eman zioten, errekonozimendu gisa. 1969an grabatu zuten lehenengo diskoa Madrilan, Xabier Gereñtik idazlearen bitartez. </p>

20. "Aitorren hizkuntza zaharra" kantua erdi zentsuratuta

- **Erref:** BER-348/033
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:49:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Urretxindorrek taldearen kantu ezagunenetariko bat, "Aitorren hizkuntza zaharra" izan zen. Ziriako Andonegi mutrikuarraren hitzak ziren eta erdi zentsuratuta zegoen: grabatu zitekeen baina ez irratian igorri. Lehenengo diskotik 10.000 ale saldu zituzten.

21. Bizkaiko "hit parade" sariak; bigarren diskoa

- **Erref:** BER-348/035
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bizkaiko egunkari eta irratiko irratsaioek antolatutako kantu arrakastatsuen txapelketak ("hit parade") antolatzen zituzten eta sariak lortu zituzten Urretxindorrek taldekoek. Juan Manuel Ares kazetari bilbotarra zen beraien agentea. 1969an bigarren diskoa grabatu zuten. Kanta bateko azkenengo zatiak ez zuen zentsura pasatu eta denak txistuka egiten dute.

22. Bergarako Urrentxindorrek: diskoak

- **Erref:** BER-348/037
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:54:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Urretxindorrek taldeko diskoek ez zeukaten izenbururik. Diskoak nolakoak ziren kontatzen du Gotzonek. Hirugarren diskoa 1970. urtean grabatu zuten, beste lau abestirekin. "Ai amatxo" eta "Neskazaharra" kantuak abesten ditu. 1971n beste bi disko txiki grabatu zituzten. Soldaduskan zeudela, hamalau kanta grabatu zituzten Madrilén, gero poliki-poliki diskoak ateratzeko.

23. Bergarako Urretxindorrek Lekeition eta Bermeon

- **Erref:** BER-348/039
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Soldadutzatik bueltan, hiruzpalau urte gehiago iraun zuten talde bezala eta banatu egin ziren. Lekeitioko jaialdi batean eman zuten kontzertua ekartzen du gogora Gotzonek.

24. Kontzertu klandestinoak

- **Erref:** BER-348/040

- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 00:59:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Jaialdi batzuetara heltzen zirenean, ezin zutela kantatu esaten zieten bertan egoten ziren poliziek. Jaialdia amaitutzat ematen zen, polizia joaten zen eta orduan igotzen ziren oholtzara. Gehienetan kobratu gabe jotzen zuten eta jaialdikoek gasolina eta afaria edo bazkaria ordaintzen zieten.

25. Garai bateko musika taldeak

- **Erref:** BER-348/042
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:00:40. **Bukatu:** 01:03:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Behin Madrilera disko bat grabatzera joan zirenean, Formula Quinta-ko abeslariarekin topo egin zuten diskoetxean. Los Buenos taldeari buruz hitz egiten du. Bergarako Ariznoa dantzalekuan igandetan emanaldiak ematen zituzten.

26. Bergarako Urretxindorrek: taldekideak, hitzak...

- **Erref:** BER-348/044
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:04:18. **Bukatu:** 01:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Begarako Urretxindorrek taldeak abestien euskarazko bertsioak egiten zituen, baina kanta batzuen letrak originalak ere badira. Batzuk aipatzen ditu. Lau kide ziren Bergarako Urretxindorrek taldean. Raul eta Julio gitarran, Gotzonek panderoa eta Juan Marik aho-soinua. Laurek abesten zuten

27. Bergarako Urretxindorrek: kantu-bilduma

- **Erref:** BER-348/046
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:06:03. **Bukatu:** 01:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Azkenengo diskoa argitaratu zutenean, Urretxindorrek taldea desegin egin zen. Handik urte batzuetara Elkar argitaletxetik kanta-bilduma bat ateratzeko

eskaintza jaso zuten. 2003an bilduma bat atera zuten abesti berri batzuekin batera.

28. Bergarako Urretxindorrak: kanta kuttunenak

- **Erref:** BER-348/048
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:07:27. **Bukatu:** 01:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

1991. urtean, Bergaran ospatu zen Kilometroak jaialdirako elkartu ziren berriz Urretxindorrak taldekoak. Telebistarako saio batzuk ere grabatu zituzten. Gotzonek Urrentxindorrak taldeko kanta kuttunenak zeintzuk diren kontatzen du.

29. Bergarako Aritzeta abesbatzaren sorrera

- **Erref:** BER-348/053
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:12:42. **Bukatu:** 01:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aritzeta abesbatzaren sortzaileetako bat izan zen Gotzon. Beste sortzaile batzuen izenak ematen ditu: Joxe Agirre, Jose Antonio Aperribay, Justo Idigoras, Rosa Narbaiza, Uxue Marko... Abesbatza orfeoiaaren aurrekaria izan zen.

30. Bergarako Alai taldea

- **Erref:** BER-348/055
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 01:17:36. **Bukatu:** 01:22:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Begarako Alai taldeko kidea de Gotzon. 1971n sortu zen 15 gizonen osatutako abesbatza da. Ezkontzetan, Santa Agedan, Gabonetan... abesten dute. Gaur egun, Xabier Olabarria da zuzendaria. Kide guztiak izendatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com